

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

343 zb.
www.getxo.eus

>> 2020ko Otsaila



Nabarmen^{tzekoak}

> 70 lagunek ospatu dute Wanted programaren hamargarren urteurrena

- > Haszten TV-ren programa pilotuaren aurkezpena, Romo Kultur Etxean
- > Gazte intereseko elkarreentzako diru-laguntzak

Zer da Gaztelagun programa?

Udalak emandako laguntzez gain (eskaera epea behar bezala iragarriko da), Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun programa du 18 eta 35 urte bitarteko gazteen emantzipazioa bultzatzeko, zuzeneko laguntzen bidez alokairu bat ordaintzeko. Programak du helburu aurten 4.500 gazteri ematea laguntzak, eta 2021ean 6.000 lortzea.

Beharrezkoa da 18 eta 35 urte bitartean izatea, urtebete jarraian Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izana, eta ezin da etxebizitza jabetzan eduki, salbu eta etxebizitza horretaz ezin dela disfrutatu egiaztatzen bada (banantze- edo dibortzio-arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuegatik), eta errentamendu-kontratu baten titularra izan behar da, banaka edo errentari-kide gisa (etxebizitza partekatuz).

Gainera, etxebizitzak laguntza eskatzen duten pertsonen ohiko bizileku iraunkorra izan behar du, eta ezin da familia-loturarik izan etxebizitza alokatzen duen pertsonarekin (hirugarren mailara arte) edo haren familia-unitatearekin. Errenta banku-transferentzia bidez ordaindu behar da.

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31ra arte egongo da zabalik.

Baldintza ekonomikoak eta gainerako dokumentazioa ezagutzeko, kontsultatu: <https://www.alokabide.euskadi.eus/aa10-eje201/eu/>

BEKA SARIAK

* **Research Fellow Programa 20 gazte ikertzaile kontratatuko,** 3 eta 10 urte bitarteko ikertze mailako eskarmentuarekin, Ikerbasquek deituta. Bost urteko kontratuak, ebaluaketa aukerarekin ondoren behin betiko plaza lortzeko. Deialdi irekia martxoaren 24ra arte. Informazio gehiago: Ikerbasque. Tel.: 94 405 26 60/656 782 415 eta madariaga@ikerbasque.net

* **45 gradu ondoko beka IparAmerikan eta Asia-Pazifikon, eta 30 doktorego beka Espainian eta Portugalen,** "La Caixa" Fundazioak deituta. Lehenengoak master edo doktorego ikasketak egiteko dira Estatu Batuetan edo Kanadan, eta bigarrenak Australia, Hego Korea, India, Japonia, Singapur eta Txinan. Deialdia martxoaren 18an (lehenengo kasuan) amaituko da eta otsailaren 26an (bigarrenean). <https://obrasociallacaixa.org/es/educacion-becas>

* **"Y Tú, ¿Qué?" Lehiaketa,** Droga-mendekotasunaren aurkako Laguntzarako Fundazioak (FAD) antolatua, gazteentzat edo gazte-talde batzuentzat, ikastetxeetako edo gazte-elkarteetako kideentzat. Aurkezpen-modalitateak lau dira: idatzizko euskarria, arte-adierazpena, ikus-entzunezko euskarria eta abar. Horien edukia **Eta zuk zer pentsatzen duzu? eta zer sentitzen duzu?** gaietako batean edo batzuetan oinarritu behar da. Aurkezteko epea: ekainaren 2a arte. Informazio gehiago: tel.: 91 383 83 48 eta www.campusfad.org

* **XVII. Giza Eskubideei buruzko marrazketa lehiaketa.** Hiru sari ezartzen dira Lehen Hezkuntzarako eta hiru Bigarren Hezkuntzarako (DBH, Batxilergoa eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak), eta beste bat Hezkuntza Berezirako. Saria ordenagailu eramangarri bat pertsonako izango da. Herriaren Defendatzaileak diru-laguntza bat emango du, saria jasotzera Madrilera joateko. Lanen entrega: apirilaren 4ra arte. Informazio gehiago: <https://bit.ly/31dVPWo>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 6, osteguna: EKINTZA: PAPER BIRZIKLATUA EG
Hilak 8, larunbata: IRTEERA: ZINEMA
Hilak 11, asteartea: TXAPELKETA: FUTBOL
Hilak 13, osteguna: SUKALDARITZA: FLANA
Hilak 16, igandea: IRTEERA: MENDIRA
Hilak 18, asteartea: EKINTZA: MAHAI JOLASAK
Hilak 20, osteguna: EKINTZA: XABOI NATURALA EGIN
Hilak 22, larunbata: IRTEERA: BOLERA
Hilak 25, asteartea: ESKULANAK: GILTZATAK
Hilak 28, ostirala: TXAPELKETA: PIN-PON

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Otsaila

Hilak 6, osteguna: JOLASA: PETANKA
Hilak 7, ostirala: JOLASA: SLACKLINE
Hilak 8, larunbata: JOLASA: XAKEA
Hilak 13, osteguna: TXAPELKETA: DARDOAK
Hilak 14, ostirala: MASTER CHEF: MADALENAK
Hilak 16, igandea: IRTEERA: MENDIRA
Hilak 20, osteguna: TXAPELKETA: SASKIBALOI
Hilak 21, ostirala: SEXOLOGIA EZAGUTUZ
Hilak 22, larunbata: IRTEERA: LAUREN GETXO ZINEMA
Hilak 28, ostirala: MASTER CHEF: TORTITAK
Hilak 29, larunbata: TAILERRA: INAUTERIAK



70 lagunek ospatu dute Wanted programaren hamargarren urteurrena

Azken urteotan Wanted-ekin harremana izan duten 70 lagunek parte hartu zuten aurreko larunbatean, hilak 25, Muxikebarrin, programa horren hamargarren urteurrenaren ospakizunetan. Programa horrek gazteek garatutako proiektuak abian jartzea sus-

tatzen du, hain zuzen errealtate bihurtzeko zailtasunak dituztenak finantzaketa, aholkularitza tekniko, orientazio eta abarren faltagatik. Aurreko edizioetako irabazleek prozesuan zehar izandako bizipenak kontatu zituzten eta gaur egun zer

egoeratan dauden azaldu zuten *etxebizitza partekatua*ren formatuan, oso modu dibertigarri eta lasaian. Horretaz gain, bertaratu ziren pertsona guztien artean networking giro bat sortu zen eta, bertan, pertsona ezezagunek elkar ezagutu zuten eta proiektuetan lan egiteko modu berriak pentsatu zituzten. Topaketa-jaiak Wanted komunitatea deitu daitekeena osatzen duten pertsonak lotzeko balio izan zuen; proiektuz betetako gazteen eta profesionalen sarea, beren ezagutza eta esperientzia trukatzeko elkarlanean diharduena, Getxoko gazteek beren sormena eta grina gure udalerrira ekartzeko aukera izan dezaten.

Hitzordua amaitu zen Maitane Sarralde eta Eneritz Zerberioren dantza bertikaleko ikuskizunarekin eta Queer Revolution Dj eta Thunder Clap Sound Systemen ikuskizunekin.

Gazteria eta Sustapen Ekonomikoa Arloek sustatzen dute Wanted programa, 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazte getxotarrentzat.

Gazte intereseko elkarteentzako diru-laguntzak

Datorren martxoaren 13ra arte zabalik egongo da Getxoko gazte intereseko elkarteentzako diru-laguntza eskatzeko epea. Udalak aurten 28.000€ bideratuko ditu laguntza horien deialdirako.

Diru-laguntza horien xedea da gazte intereseko elkarten ohiko gastuak ordaintzera laguntzea. Diru-laguntza irabazi asmorik gabeko erakundeek eskatu ahal izango dute, nortasun juridikoa baldin badute, Getxon helbideratuta badaude eta 30 urtez beheko kideak badituzte edo/eta jarduera guztiak edo hauetako batzuk Getxoko gazteei zuzentzen badizkiete.

Aurkeztutako proiektuak 0tik 100era arteko eskala batean baloratuko dira, kontuan hartuko diren 15 irizpideren arabera banatuko direnak.

Deialdiaren oinarriak www.getxo.eus/gazteria web orrian eskuragarri daude.

Hilaren 20an, ostegunean, 19:30ean Haszten TV-ren programa pilotuaren aurkezpena, Romo Kultur Etxean

Bizkaian kirolaren eta jardura fisikoaren bidez aniztasun funtzionala duten pertsonen bizi kalitatea hobetzearen alde lan egiten duen Haszten elkarteak Haszten TV izeneko proiektu berria aurkeztuko du datorren otsailaren 20an, ostegunean, 19:30ean, Romo Kultur Etxean. Hori kirol egokitu eta inklusiboaren ikusgarritasuna handitzeko helburua duen programa bat izango da. Horri esker sentiberatze lana egin nahi da, era dibertigarri eta hezigarri batean. Lehen atal pilotua Wanted programaren laguntzarekin egin izan da, neurri handi batean.

Programan hurrengo 4 lagunek hartuko dute parte: Peru Gortazar Chapa (ekoizpen laguntzailea), Inazio Nieva Rodríguez (kazetari lana), Nerea García Liste (kazetari lana) eta Jonatan Peña Sainz (zuzendaria). Taldekide bi elkarte kirolariak dira eta aniztasun funtzionala dute.

Programak honako hiru atal hauek izango ditu:

- Kirol egokituaren esparruan ezaguna den kirolari bati elkarrizketa. Horretan kirolari horren ibilbide eta egun-egoera ezagutaraziko da.
- Kirol ikuskizun batean



kazetari lanak egingo dira, parte hartzen duten pertsona batzuei elkarrizketa txikiak eginez.

- HaszTEST, atalik laburra izango da, aldi berean, dinamikoena. Bertan *zaitutako pantaila* batean kirol egokituko zein ohiko kiroleko bi kirolari ezaguni elkarrizketa berdina egingo zaie.

Ekitaldian parte hartu ahal izateko gonbidapena beharrezkoa izango da. Gonbidapena lortzeko informazioa nahi izanez gero pertsona interesatuek 699 609 588 telefono zenbakira dei dezakete.

